

Aretxagazeta

VII. GASTRONOMIA ETA FOLKLORE JAIALDIA

Gaztela eta Leon, Errioxa, Galizia, Extremadura eta Euskal Herria:
mokadutxo bat jan, eta dantza eta kantuekin gozatzeko aukera paregabea

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

**XIV. Mendi Bizikleta
Ibilaldia /08**

EUSKARA

**Ikasturte berria
euskaltegian /09**

LEINTZ GATZAGA

**Teknologia berriak
herrian /10**



GUARDIAKO FARMAZIA

ZAPATUA, 18
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

DOMEKA, 19
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07
ARETXAGAZETA 943 79 86 21
Faxa 943 77 18 54
Basotxo 943 77 09 81
Euskaltegia 943 79 21 68
Gizarte laguntzailea 943 71 18 62
Hezibide elkarteak 934 79 31 32
Industrialdea 943 79 62 80
Instituitua 943 79 79 00
Kirol etxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
KZGunea 943 79 94 44
Liburutegia 943 71 18 62
Loramendi EE 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murruxiko ME 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun etxea 943 71 19 59
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
Taxi geltokia 943 79 22 33
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udaltzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALZAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Deiak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 79 71 99
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdia 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:30
(Urriaren 19tik aurrera bi meza izango dira lehen bezala: 11:00etan eta 12:00etan)
Zapatuetan: 19:30

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatuetan: 18:30
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN:
AREANTZA
Domekan 12:30ean.

MENDIOLA
Zapatuan 12:00etan. Otoitzaldia.

GALARTZA
Domekan 11:30ean.

OHARRAK

GASTRONOMIA ETA FOLKLORE JAIALDIA
Etzi, domeka, VII. Gastronomia eta Folklore Jaialdia egingo dute Herriko Plazan. Jaialdia Kiub-ek antolatu du. Galiziako eta Errioxako taldeak etorriko dira Donostiatik, Gaztela eta Leongo taldea Laudiotik eta Extremadurako taldea Arrasatetik. Aurten, jotak abesten dituen taldea ere egongo da, Errioxako Autol herritik etorrira.

Horrez gainera, IX. Patxaran Lehiaketa egingo dute, urtero moduan. Patxaranak domekan bertan 11:00etatik 14:00ak bitartean aurkeztu behar dituzte parte-hartzaileek Herriko Plazan.

OIHULARI KLOWN TALDEA LIBURUTEGIAN
Oihulari Klown taldeko kideek ipuinak kontatuko dituzte Udal Liburutegian egunean, urriaren 23an, 18:00etan. 6 eta 8 urte arteko umeei zuzenduta dago ikuskizuna.

DANTZA AFRIKAR IKASTAROA
Burkina Fasoko lagun batek dantza afrikar ikastaroa emango du. Eskolak martitzenetan izango dira, azaroaren 4an hasi eta abenduaren 9ra bitartean, Kurtzebarri eskolan. Izena emateko Azkena tabernara joan behar da.

LORAMENDIRENAGENDA

LABRIT
Urriaren 24an, egubakoitzean, Labrit kantaria izango da udaletxe zaharrear, 22:00etan.

ESKULAN IKASTAROAK
Aurreko urteotan bezala, eskulan eta bainika ikastarook hasiko dituzte. Eskulan eskolak Rosa del Aguila-ekin izango dira martitzenetan eta bainika eskolak Blanka Perearekin eguztetenetan 18:00etatik 20:00etara.

ORAINDELA 7URTEARETXABALETAN

Herri krosa egin zuten UDAREN 50. urteurrenean

UDAREN 50. urteurrena ospatzeko herri krosa antolatu zuten urriaren 20an. 150 korrikalarik hartu zuten parte, eta Iban Sanchez gasteiztarak irabazi zuen. Proba bukatu ostean, Olinpiadetan egondako Diego Garcia, Martin Fiz eta Joseba Larrinaga atletei omenaldia egin zieten.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Imutua"

Inbutu.
—Imutu barik ezin ddot ardao-botillia bete.



GORKA ORTEGA

LIBURUTEGIKOTXOKOA

Liburutegiko ekintzak

Haurrengan irakurtzeko zaletasuna pizteko eta liburutegiaren erabilera bultzatzeko asmoz hainbat ekintza antolatu ditu Udal Liburutegiak urte amaiera artean.

Urriaren 23an Oihulari Klown taldekoek ipuinak kontatuko dituzte liburutegian. 18:00etan izango da, eta 6-8 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago.

Azaroaren 20an, 18:00etan, Pello Añorga ipuin kontalaria egongo da 4 eta 5 urteko haurrendako.

Abenduan beste ipuin kontalariren bat etorriko da, eta liburutegian orrialdeak markatzeko egutegia aterako dugu.

Liburutegia astelehenean egubakoitzera zabaltzen dugu, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Haur zein gazteendako liburuak, aldizkariak... daude, liburutegian bertan ikusteko edo etxera eramateko, aurrez bazkide txartela eginda. Txartel hori debalde egiten dugu, eta aldi bakoitzean bi dokumentu etxera eramateko aukera ematen du.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

ZORIONAGURRAK




ARETXABALETA
Ainhoa Zabaleta
8an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko eta lagunaren partetik.



ARETXABALETA
Kizkitza Gillaurren
11n, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko eta lagunaren partetik.



ARETXABALETA
Lore Lezeta
13an, 1 urte. Zorionak eta muxu bat! Etxekoak, aitaita eta amama.



ESKORIATZA
Bittor Barandiaran
17an, 6 urte. Zorionak eta muxu bat, txapeldun! Etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Izaro Ferreira
17an, 1 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Ziortza Martin
19an. Zorionak eta muxu handi bat, ARETXAGAZETAko langileen partetik.



ARETXABALETA
Karlos Martin
20an. Zorionak eta muxu handi bat! Inma, Ane, Nahia eta Endika.

BABESLEA

FOTOSINTESIS
argazkilaritza

35mm, APS eta digitalen errebelatuak 24 orduan. Tamaina guztiak.

Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak
Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67

Banatzaileak

Egubakoitz arratsaldeetan Goienkaria banatu eta poltsikorako diru apur bat irabazi gura baduzu...


Deitu 943 71 23 91 telefonora edo etorri Aretxagazetako bulegora: Durana 11, 2. solairua

Derrigorrezkoa da 14 urtetik gorakoa izatea.

ATREBENTZIAEZPADA/ Kultura etxe pareko pibote barrixek ondo dauz? Zerbaitterako balixo daue?




LUCIA CABRERO
Langillie



RODRIGO FERNANDEZ
Langillie




ANA FLORES
Langillie



PELLO UNZUETA
Langillie



DEIANE MADINABEITIA
Langillie



JULIO MORALES
Langillie

Baietz uste dot. Oin arte auto gidarixek ez euen errespetetan ha gurutzebidie, eta horreikin pibotioekin errespetau eragingo dauela uste dot. Nik neuk pibote barik be beti zuzen jokatu dot.

Ez, ez dauz bape ondo. Pibote eta guzti ondiokan be auto gehixenak bueltarik emun barik zuzen sartzen die tunelera. Gaiñera, zuzen jokatu eta buelta emutie ez da bape samurra izeten.

Bai. Uste dot auto gidarixek zuzen jokatu eta buelta dana emun daixien baliagarrixek diela jarritako pibotiek. Dana dala, nik ez dauket karnetik, eta hortan, ez naz kotxien ibiltten.

Ez, nahiko txarto dauz horreik pibotioik. Ni neu hamengo bizilagune naz eta garajera sartzeko traba besterik ez daue egitten. Oiñezkuendako peligrue ikusitte, tunela itxiko neuke.

Ez, gaizki dauzela pentsetan jat. Horrei pibotioi ez dutzet iñungo zentzurik topetan, eta gaiñera, traba bakarrik egitten daue. Nik bueltiegin barik zuzenien hartzen neuen tunelerako bidie.

Bai, uste dot zerbait egingo dauela. Baiñe arazue zuzen jokatu eta buelta dana emutie da. Aparkaleku pare bat kendu egin biherko leukie, horreik pibotioik errespetau eta buelta dana emuteko.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK-TXALOAK NEURRI BERRIAK Aretxabaletako Udalak neurri berriak hartu ditu kultura etxe pareko bidegurutzetan. Auto gehienek kasu gutxi egiten diete han jarritako zirkulazio araei. Horregatik, piboteak jarri dituzte. Txaloak, arauak bete daitezen egin berri duten ahaleginari; eta txistuak, hala eta guztiz ere, gura dutena eginez araeuz paso egiten dutenei. /A.L.

ETABARRUAN...

- | | | |
|--|---|--|
| ENPRESA /04 | JAIALDIA /05 | KIROLAK /06 |
| Tubos lantegiak 50 urte | Gastronomia eta Folklore | Kirol etxeko tarifa berriak |
| Tubos de Precisión lantegiak 50 urte bete ditu aurten, eta ospakizuna egin zuten zapatuan. | Domekan egingo dute VII. Gastronomia eta Folklore jaialdia; baita IX. Patxaran Lehiaketa ere. | Udalak onartu ditu datorren urterako kirol etxeko abonua eta zerbitzuen salneurri berriak. |

ASTEKODATUA

25

URTE DITU UDAL HIRIGINTZA TEKNIKARI BERRIAK

Aitziber Mendigain dugu Udaleko hirigintza teknikari berria. Olaia Etxenagusiak utzitako hutsunea beteko du. Lizartzakoa da eta 25 urte ditu. Aitziber astelehenean hasi zen lanean.


BESTEKEESANA

“Zaila da ondo erdiratzea eta taldekidearen intentzioak zeintzuk diren jakitea titular moduan urtean bost partidu bakarrik jokatzeko dituztenean. Elkar ulertzea partiduak jokatzeko lortzen da; jarraikortasun barik askoz zailagoa da taldekideak baloia nola hartu gura duen edo norantz joateko intentzioa duen jakitea.

Baleko erdiratzea baloia atezainaren sare barruan bukatzen duena izaten da, eta horretan nik ez dut suerte handirik izan. Partiduak jokatzeko, gero eta hobeto egitea espero dut. Entrenamenduetan taldekideek nola jokatzeko duten ikusten dut, baina partiduak desberdinak izaten dira. Segundo gutxiko jokaldiak egiten dira eta horietan intuizioa eta zehaztasuna dira garrantzitsuenak.

JOSE JAVIER BARKERO
‘El Diario Vasco’/03-10-13

HERRITARRENBERBAK/ Aitor Agiriano



Jaiak aldatuz

Aste pare bat dela, atal honetan bertan, Arantxa Jakak zergatik fedea (jainkoa) alendu nahi duen gure herri honek fedearrekin loturiko pertsonaiak behar izaten dituen jaiak ospatzeko galdera bota zigun. Galdera zailak erantzun zaila izan ohi badu ere, horren inguruan zerbait esatea posible dela iruditzen zait, ez baitut uste, gaur egun behintzat, fedearrekin loturiko pertsonaiak “behar” direnik jaiak ospatzeko. Zera diot, jendea ez dagoela lehen bezala santu-egunei (bakarrik) begira, bazkari-afari, dantza eta parranda egiteko. Egia da santuen egunak ospatzen direla, baina egun, aste bukaera ere edozein jaiaren pareko izan liteke. Santuen egunetako festak ohituraz geratu direlakoan nago; halakoak, tokian tokikoak, aspalditik ospatzen direlako. Fedearren galera horretan, Arantxak zioen (guztiok

dugun) gauzen inguruko jakin min horrek, uste baino zer esan gehiago duela deritzot. Pentsatzen jarrita, edozein erlijio, fedea eskatzen du; sinestea, hain zuzen ere. Eta ez, erlijioaren mezua zalantzan jartzea edota beste modu batera interpretatzea (gogoratu bestela, garai bateko herejeak, “sorgin” izendaturikoak...). Alabaina, erlijiotik aldentzea ez da egun batetik besterako kontua. Arrazoi eta gertaera ezberdinak daude tartean. Denborak aurrera egin duen heinean, garai batean sinetsi beharreko alderdi ugari zalantzan jarri dira eta ondorio ezberdinak aurkitu dizkiete; sinesgarriagoak direnak agian. Jainkoaren eginkizun (omen) diren fenomeno atmosferikoak, munduaren sorrera bera, nahiz beste hainbat gertaera, zientziak oso bestela azaltzen ditu. Eztabaitatzeko asko dagoen arren lekua dugu gutxi eta, hala utziko dugu gaurkoan.

“Egia da santuen egunak ospatzen direla, baina egun, aste bukaera ere edozein jaiaren pareko izan liteke”



Eusko Jauriritzako Kultura Saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Leintz Gatzagako Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Herriko kontuek

Batzuk itxi eta beste batzuk zabaldu. Iosu Arenaza harakiñek, esate baterako, itxi egingo dutzo lanai. Gerra haundixe emuten ei dutzie hankek, eta aspaldixen ebillen izteko goguz. Baiñe taberna-harategixek ez dittu atiok itxiko, ez horixe, Galartzako lagun batzuk hartu daue. Ia Iosuk beste suerte daukien negoziuz... Itxi dauien beste batzuk Izotz tabernie eukien Susi eta Jose die. Ume txixixe euki daue ointxe eta tabernako lanai agur esateko ordue aillegau jakie-la pentsau daue. Ondo hazi deixiela neska txixixe! Baiñe trankil egon tabernako atiek ez die itxiko-eta. Egunitan margoketan dabitz eta laister zabalduko daue barriro, hori bai beste batzuk.

Langillez langille noie eta udaletxien langille barrixe daukouela esan duztie. Hirigintza teknikarixe da bera, Aitziber Mendigain. 25 urte dittu, Lizartzakue da eta Olaia Etxenausiak itxitxeko postue beteten dator. Haixe barrixek udaletxera be, eta politte ei da, gaiñera, neskatzue.

Kirolakin bukatuko dot gaurkuen, eta Realien dabillen Jose Javier Barkero egunkarixetan agertu da egunitan. Oviedon kontra jokatu-ko partiduen gola sartu euen, baiñe greziarren kontrakuen txistuek jaso zittuen. Danon gustoko jokalarixe topetie ez da samurre izeten, baiñe neuri asko gustetan jat eta gaiñera, herrikue izenda gehixau. Animo eta aurrera!

Mikel Etxabe futbolarixe be ez dabil bape txarto. Denboraldi honetan bigarren maillan jokaketan dau, Xerez taldien, eta fan dan aste bukaeran Eibarren kontra jokatu euen. Animo eta aurrera zuri be!

M. J. Aretxaga

ENPRESA/ Union Cerrajera eta Beistegi Hermanos enpresen artean sortu zuten, BH bizikletendako tutuak egin zitzen

Tubos de Precision lantegiak 50. urteurrena ospatu zuen Joseba Azkarraga sailburua bertan zela

MIRARI ALTUBE

Irailean bete zituen 50 urte kuartel zaharraren ostean dagoen Tubos de Precision lantegiak. Ibilbide luzea egin du, eta aldaketa handiak izan ditu azken urteotan, baina hasierako lan jardunarekin segitzen du. Hori ospatu zuten zapatuan egindako ekitaldian.

Joan zen zapatuan ospatu zuten Tubos de Precision lantegiaren 50. urteurrena. Joseba Azkarraga lan eta justizia sailburua eta Arritxu Oliden alkatea izan ziren ekitaldian.

50 URTE TUTUAK EGITEN

Tutuak egiten dituzte Tubos de Precision lantegian: bizikleten eta automobilen sektoreetarako, etxetresna elektrikoetarako, siderurgia sektorerako eta beste hainbat sektoreetarako tutuak.

Union Cerrajera eta Beistegi Hermanos lantegien artean sortu zuten Tubos de Precision. Lehengoak lehengaiekin hornitzen zuen eta bigarrenak BH bizikletak egiteko tutuak erosten zizkion. Orduetik hona aldaketa asko



Miguel Angel Delgado gerenteak lantegia erakutsi zien Joseba Azkarraga sailburuari, Arritxu Oliden alkateari eta Patxi Ormazabali.

OLAIA MONDRAGON

izan dira: langileak ez dira ordukoak, kooperatiba osatu dute... Ixtekotan egon ziren iaz, baina lantegiak ez zion lan jardunari utzi; alderantziz, inoiz baino

indartsuago dabil lanean.

Hori guztia ospatzeko ekitaldi polita egin zuten joan zen zapatuan. Langile ohiak gonbidatu zituzten, eta Joseba Azkarraga

sailburuarekin eta Arritxu Oliden alkatearekin batera etorkizuneko egitasmoen berri jaso zuten. Eta gaur egun zelan egiten duten lan erakutsi zieten.

Italiako irakasleak egon dira Aretxabaletako institutuan

M.A.

Erromako bi institututatik etorritako irakasleak egon dira Aretxabaletako institutuan. Fabrikazio mekanikoko teknikak ikasteko asmoarekin etorri dira, eta inguruko hainbat lantegi ikusi dituzte.

Italiatik etorritako irakasle bi egon dira egunitan Aretxabaletako Arrasate institutuan. Oso gustura egon dira, eta positibotzat jo dute gure herriko institutura egindako bisita.

FABRIKAZIO MEKANIKOKO TEKNIKAK

Nicola Trabucco eta Irene Ferri irakasleak Erromako bi institututatik etorri dira, eta Aretxabaletako institutuan egon dira egunitan. Fabrikazio mekanikoko teknikak ikasi dituzte eta insti-

tutuan erabiltzen dituzten teknologia berriak erakutsi dizkiete. Hainbat lantegi ikusi dituzte, gainera; Ederlan eta Mecanizados Alberdi tartean. Eta herri inguruak ere erakutsi dizkiete; Urkulu, esaterako.

LEONARDO DA VINCI PROGRAMA

Eusko Jaurlaritzak eta Europako Gizarte Fondoak bultzatutako Leonardo da Vinci programaren bitartez etorri dira irakasle biok. Maiatzean Arrasate-Aretxabaletako institutuko lau irakasle joan ziren Erromara, eta orain bisita itzultzea tokatu zaie hangoei. Horren harira, udaberrian Alemaniako ikasleen bisita jaso zuten Aretxabaletako institutuan Leonardo da Vinci programak lagunduta. Hain zuzen ere, programa horren laguntza jaso duten hirugarren urtea da aurtengoa.



Arizmendiko zerbitzu zentralak herrian

Prentsaurrekoa eman zuten Arizmendi ikastolako arduradunek martitzenean. Ikastolaren bateratze prozesua bukatuta dagoela esan zuten bertan, eta dagoeneko abian dela Arizmendi ikastolaren jarduna. Arizmendik, gainera, Aretxabaletan izango dituzte zerbitzu zentralak, Larrin plazan dagoen Otalora jauregian, hain zuzen. 36 lagunek egingo dute lan. Bi solairutan banatu dituzte lantaldeak.

Martitzenean Arizmendiko kirol kamisetak aurkeztu zituzten. Diseinua Oier Fuentes aretxabaletarrarena da. /M.A.

JAIA/ Azken urteotan legez, herritar ugari hartuko dute parte Patxaran Lehiaketan

Gastronomia eta Folklore Jaialdia egingo dute domekan

M.A.

Orain dela zazpi urte egin zuten lehen aldiz Gastronomia eta Folklore Jaialdia, eta ordutik hona urtero antolatzen du Kiub-ek. Kanpotik lau talde etorriko dira: Galiziakoa, Gaztela eta Leongoa, Errioxakoa eta Extremadurakoa. Herriko ordezkariak ere egongo da.

Ezti, domeka, ospatuko dute VII. Gastronomia eta Folklore Jaialdia. Kontsumitzaileen informazioarako udal bulegoak antolatzen du, eta gero eta arrakasta handiagoa dauka.

GASTRONOMIA ETA FOLKLOREA

Beste herrialde batzuetako gastronomia eta folklorea ezagutzeko aukera paregabea daukagu domekan. Galiziako, Gaztela eta Leongo, Errioxako eta Extremadurako taldeak etorriko dira gurea: "Arrasateko Al-Andalus taldea etorri izan da urte batzuetan, baina aurten beste konpromiso bat hartuta du", dio Martin Garai Kiub-eko arduradunak. Herriko ordezkariaren ardura Loramendi Dantza Taldeak eta Gatzagako Jakion enpresak izango dute. Aratz atzeratuak elkarrekin, bestalde, taberna jarriko du azken urteotan bezala.

Donostiatik datozen Galiziar Etxeko kideek olagarro usainez beteko dute Herriko Plaza; olagarroa eta albariño ardoa izango dituzte, hori bai moka-dua! Laudiotik etorriko den San Fernando taldeak Gaztela eta Leongo jaki goxoenak ekarriko ditu. Donostian egoitza duten Errioxako Etxeko errioxarrek, oster, txorizoak, odolosteak eta antzekoak izango dituzte. Eta Arrasateko Corazon de Encina taldeko extremadurarren postuan txitxi-burruntziak, urdaiazpikoa eta erroskillak aurkituko ditugu. Jatekoaz eta edatekoaz gain, folkloreak berri emango dute: dantzak eta kantuak han eta hemen izango dira, lehenengo kaleetan zehar eta gero Herriko Plazan. Aurten, gainera, Errioxako Autol herriko jotariak etorriko dira lehenengo aldiz.



Extremadurak pestiñoak eta erroskillak ekarriko dituzte domekan Herriko Plazara.

*Errioxako Autol
herriko jota
abeslariak etorriko
dira aurten
lehenengo aldiz*

IX. PATXARAN LEHIAKETA

Aurten bederatzigarren aldiz egingo dute Patxaran Lehiaketa. Herritar ugari hartuko dute parte, azken urteotan moduan, eta kanpotarrak ere etorriko dira.

Parte-hartzaile bakoitzak bi botila aurkez ditzake lehiaketara, ez gehiago; eta botilek garde-nak izan behar dute, patxarana ondo ikusi ahal izateko. Horrekin batera, botilaren orijinaltasuna

*Gainerako
patxaranak
herritarrek proba
ditzaten utziko
dituzte plazan*

ere hartuko dute kontuan. Domekan bertan eraman behar dira patxaranak Herriko Plazara 11:00etatik 14:00etara bitartean. Lehenengo hiru patxaran onenak egiten dituztenei trofeoa eta dirua emango diete, eta patxaranok antolatzaileen eskutik geratuko dira. Gainerakoak, berriz, herritarrek proba ditzaten utziko dituzte arratsalde partean Herriko Plazan.

LABUR

Domeketan bi meza esango dituzte Andre Mariaren Zeruratze parrokian

Donostiako elizbarrutiak hasi du ikasturtea. Hori dela eta, domeketako mezetako ordutegian aldaketak egin dituzte; hala, aste bukaera honetatik aurrera domeketan bi meza izango dituzte Andre Mariaren Zeruratze parrokian: bata 11:00etan eta bestea 12:00etan. Agustindarren santutegian, lehenengo moduan, 09:00etan izango da. Zapatuetan, oster, ez dute mezarik izango santutegian.

Astegunetako mezek, berriz, ez dute aldaketarik izango; horrela, bada, 19:00etan izango dira agustindarren santutegian, eta hileta izanez parrokian izango da ordu berean.

Loramendi Euskara Elkarrekin udazkenerako antolatutako ekitaldiak aurrera doaz

Loramendi Euskara Elkarrekin ekitaldiz betetako udazkena antolatutako du. Atzo, esaterako, Igelaren Banda egon zen; urriaren 24an, egubakoitzean, berriz, Labrit kantaria etorriko da; 30ean Andoni eta Xabier Ormazabalek *Elurretan lehoinabarraren bila* diapositiba emanaldia egingo dute; azaroaren 6an Joseba Gotzon kantariak *Fotopoenak* diskoa aurkeztuko du; eta 20an Gilkitxaro antzerki taldearen *Elevator* lana ikusteko aukera egongo da.


ARGAZKI-ALBISTEA



Laster hasiko dituzte eskulan ikastaroak

Taldeak osatu ahala hasiko dituzte Udako Kultura Sailak antolatutako eskulan ikastaroak. Emakume asko kezkatzen hasita zegoen aurten ez ote ziren egongo, baina lasai, hemen daude eta. Hainbat eskulan mota izango dituzte aukeran: bainika, *richelieu*, marketeria... Ordutegia ere izango dute aukeran: astelehenetan eta eguenetan Mila Akizuk emango dituzte eskolak, eguaztenetan Rosa del Aguilak eta martitzenetan eta eguenetan, berriz, Piedad Romanek. Ikastaroak 30 ordukoak dira. /M.A.

Zubia
oinetakoak



zapatak, zapatilak,
gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14 • 943 79 16 00
ARETXABALETA
Biteri 1 • 943 79 66 53
ARRASATE

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28

Jauregi
Okindegia

Otalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaial - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

KIROL ETXEA

Udalak onartu ditu 2004rako kirol etxeako abonua eta zerbitzuen tarifak

Igoera garrantzitsua, %13 baino gehiago, abonua murriztuek izango dute 2004an

AMAGOIA LASAGABASTER

Aretxabaletako Udalak onartu ditu dagoeneko kirol etxeako abonua eta zerbitzuen salneurri berriak. Aldaketak urtarrean jarriko dituzte indarrean eta 2004rako izango dira baliagarriak. Igoera aipagarriena abonua murriztuek izan dute: horiek %13,92 igoko dituzte.

Udalak ez du igoera nabarmenik egingo kirol etxeako zerbitzu eta abonuetan. Edozelan ere, prezio guztiak garestitu dira apur bat.

ABONUAK

Abonuei dagokienez, murriztutakoek izango dute igoera aipagarriena, hau da, 6tik 20 urte bitarteko langabe, ikasle eta ezgaituen bazkide txartelek. Horiek 39,50 euro ordaintzen dute egun urteko tarifa; 2004an, berriz, 45 euro ordaindu beharko dute. Familiako abonuek ere igoera izango dute: 102,90 euroko abonua



Urtero moduan, 2004an ere igoera izango dute kirol etxeako abonua eta zerbitzuek.

dute gaur egun; datorren urtean berriz, 106,80 euro ordaindu beharko dute. Azkenik, norbanako abonua 2,85 euroko igoera izan du eta, hala, 78,05 euro balioko du 2004an.

ZERBITZUAK

Kirol etxeako sarreren, instalazioen erabileraren eta ikastaroen salneurriek ere gora egingo dute. Igoera handiena frontoiaren alokairuari ezarriko diote.

FUTBOLA

Epailak egindako huts baten ondorioz UDAko preferente taldeak hiru puntu galdu zituen

Joan den asteburuan ere UDAk ezin izan zuen irabazi. Berio taldea ez zuen nagusitasun argirik erakutsi Ibarra futbol zelaian jokatutako norgehiagokan, baina azkenean ere, aurkariak egindako gol bakarrak hiru puntuak eraman zituen. Igor Gordobilen mutilak ondo ibili ziren, eta hainbat gol aukera izan zituzten. Hala ere, 73. minutuan Beriokoak aurretik jarri ziren. Gainera, Berioko jokalariei batek egindako eta arbitroak adierazi ez zuen falta baten ondoren egin zuten gola kanpokoek.

Domekan, hilak 19, Aloña Mendikoen aurka neurtuko dituzte indarrak, 16:30ean; hortaz, derbia izango dute ikusgai Ibarra futbol zelaian. Oraindik liga amaitzeko asko falta da. Edozelan ere, UDAk gero eta behar handiagoa du partiduak irabazteko.

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA-Aloña Mendi
Preferentea.

Domeka. 16:30. Ibarra.

UDA-Añoiga

Infantilak.

Zapatua. 11:00. Ibarra.

PILOTA

Aretxab. - Usurbil

Lehenengo mailako gazteak.

Egubakoitza. 19:00. Iturrigorri.

Aretxab. - Altxa

Bigarren mailako gazteak.

Egubakoitza. 19:00. Iturrigorri.

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 0 Berio 1

Preferentea.

Kostkas 2 UDA 3

Gazteak. Ohorezko liga.

UDA 3 Luberri 2

Lehenengo mailako gazteak.

Behobia 0 UDA/Almen 0

Lehenengo mailako kadeteak.

UDA/Almen 4 Arrasate 2

Bigarren mailako kadeteak.

Almen/UDA 2 Urki 0

Emakumezkoen liga.

Almen/UDA 5 Urki 1

Emakumezkoak. Futbol 8.

Urola 0 UDA 3

Infantilak. Ohorezko liga.

PILOTA

Aretxabaleta 10 Añoiga 22

Bigarren mailako gazteak.

Aretxabaleta 8 Añoiga 22

Lehenengo mailako nagusiak.

Elgoibar 17 Aretxabaleta 22

Bigarren mailako nagusiak.

Gipuzkoako Karate Txapelketa jokatu dute bihar, hilak 18

A.L.

Gerriko horitik mailaz igotzeko txapelketa jokatu dute bihar, hilak 18, kirol etxean. Norgehiagokan Gipuzkoa osotik etorritako karatelariak ibiliko dira lehian. Tartean, baita aretxabaletarrak ere.

Kata (karate mugimenduak) eta *kumite* (borroka saioak) saioak egingo dituzte bihar kirol etxean egingo duten Karate Txapelketan. Gipuzkoako Karate Federazioaren eskutik, gerriko horitik marroira bitartean, mailaz igotzeko norgehiagokak egingo dituzte karatelariak.

PARTE-HARTZAILEAK

Txapelketan parte hartuko duten kirolari guztiak 14 urtetik gora

izan beharko dute. Gainera, gutxienez gerriko horia eta gehienez marroia edukitzea ezinbestekoa izango da. Karatelariendako kategoria bi egongo dira: lehenengoan, 14tik 17 urte bitartekoek hartuko dute parte eta bigarrenean, 18 urtetik gorakoek.


Aretxabaletako Karate Taldeko partaide bik hartuko dute parte biharko txapelketan: Kerman Colinok eta Ander Hernandezek, hain zuzen ere. Kermanek 16 urte ditu eta gerriko berdea dauka. Anderrek, berriz, 18 urte ditu eta gerriko horia darama jantzita. Biendako biharkoa izango da lehenengo txapelketa ofiziala. Hortaz, gehienbat esperientzia hartzera joango dira.

Karate Txapelketa bihar jokatuko dute, 16:30ean, kirol etxean. Sarrera doan izango da.



Txapelketan, Aretxabaleta Karate Taldeko Kerman Colino eta Ander Hernandez ibiliko dira lehian.

BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantentimientua
- Beiran naiz metakrilatoan neurria eginiko edozelango lanak

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

URKULU

FERRETERIA • BRICOLAGE
INDUSTRIA HORNIDURAK

Mitarte 23 / ARETXABALETA
Tel.: 943 79 96 66 / Faxa: 943 77 10 33
urkulu@cadena88.com

Jou Diaz

Karakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

MUNDUTARRAKARETXABALETAN

MANOLO DAVILA

56 URTE / LANGILEA / QUINTANA DE LA SERENA (BADAJOZ)


“Emazteari eta alabei haurtzaroa non eman nuen erakutsi gura izan diet”

MIRARI ALTUBE

Aspaldi etorri zen Manolo Badajoztik gurera, 14 urte egin berri zituela, hain zuzen ere. Lau anai-arrebak eta amak Aretxabaleta hautatu zuten bizileku eta beste batek, berriz, Arrasate.

“Oso txikia zen Aretxabaleta ni hona heldu nintzenean. Kale bakarra zuela esango nuke, Durana eta Mitarte kaleak bat eginda, eta hortik gora zerratoki batzuk besterik ez zegoen”, dio Manolok. *Etxe berriak* esaten zitzaizkien etxetan izan zuten lehenengo bizilekua; gaur egun Belorrieta auzoko etxeak dauden lekuan.

Beste askori bezala, 14 urterekin lanean hasia tokatu zitzaion, eta Romualduena zapata lantegian hasi zen: “Enkarguak egiten zituen mutila nintzen: tren geltokira joan zerbait eramatera edo ekartzera, lantegian bertan gauzak alde batera eta bestera eroan... Bide batez, nagusiari alabak zaintzen nizkion”. Romualduenean ikasi zuen euskaraz berba egiten:



“Euskaraz egin ezean ez zizkidaten enkarguak egiten uzten, eta beharko egin; hantxe ikasi nuen dakidana”, dio Manolok. Hemen egin zituen lagunak, baita neskalaguna

“Romualduena zapata lantegian enkarguak egiten zituen mutila nintzen”

topatu ere, goroetarra; hortaz, nongoa izango da, bada Manolo, aretxabaletarra ez bada?

Etorri berritan noiz edo noiz bueltatzen zen Extremadurara, baina azken urteotan behin baino ez da joan: “Azken 31 urteotan behin joan naiz Quintana de la Serena herrira. Emazteari eta alabei non jaio nintzen eta haurtzaroa non eman nuen erakutsi gura izan nien”. Hala ere, Extremadurarekin daukan lotura ez du guztiz apurtuko; izan ere, alaba gazteena bertara joan zaio ikastera.

BORONDATEZKO LANKIDEAK / Itsaso Uribeetxebarria

Hiru hilabete pasatu ditu aurtengo udan Itsasok Ekuadorren. Eusko Jaurlaritzak urtero antolatzen duen Euskal Gazteak Lankidetzan ekimenari esker joan zen. 80 borondatezko lankide joan dira aurten Euskal Herri-
tik ekimen horrek lagunduta, horietatik 12 Ekuadorrera.

Itsasok eta Gasteizko beste lagun batek Santo Domingo de los Colorados herrian izan zuten bizilekua. Ekuadorko kostaldean dago, nahiz eta itsasorik ez izan bertan, eta 800.000 lagun inguru bizi dira; horietako asko hiri inguruan dauden herri txikietan. Buruko gaitzekin arduratzen diren osasun etxe baten egin zuten lan; izan ere, Itsaso psikologian lizentziaduna da. Psikiatza batek, psikologo batek eta hiru mojek osatzen zuten osasun etxeak lantaldea, eta Itsasok eta lagunak ahal izan zuten neurrian lagundu zieten: “Sexu heziketa izan dezaten hitzaldiak ematen genizkien ikasle eta irakasleei. Herriko eskolan zegoen laguntza gelan egoten ginen arazoak zituzten ikasleekin, ondo elikatu barik zituzten umeen amei zuzendutako ikastaroak ematen genituen, unibertsitatean kultura arteko harremanen inguruko berbaldiak egin genituen eta psikiatrek antolatutako kongresuan hartu genuen parte. Hortaz, denetik egitea tokatu zitzaigula esan daiteke”, dio.

Oso herrialde pobrea topatu zuten Ekuadorrera joan ziren



“Sexu heziketa izan dezaten hitzaldiak ematen genizkien ikasle eta irakasleei”

borondatezko lankide euskaldunek. Orain dela urte batzuk dirua aldatu zuen gobernuak, eta dolarra jarri sucrearen orde. Pobreak pobreak egin ziren orduan, eta horri heziketarik eta prestakuntzarik eza batuz gero, ez dute pobreziatik ateratzeko inolako aukerarik. Itsasoren esanetan neskak oso gazte geratzen dira haurdun, 13-14 urterekin, eta 26 urterekin 5 edo 6 seme-alaba dituzte. “Sarritan gizon batenak baino gehiagorenak dira umeak, eta jakina, gizartea oso matxista iza-

nik, gizon gehienak ez dira ume ez arduratzen”.

Oso ondo hartu zituzten Santo Domingo de los Colorados herrian; esker onez eta beti laguntzeko gertu. Hala ere, kultura ezberdinekoak izanik hainbat tira-bira izan zituzten, batez ere lan egiteko orduan: “Oso lasaiak dira, eta hitzorduak ez dituzte errespetatzen; horrek askotan geure onetik ateratzen gintuen. Ekuadortarren iritziz, ostera, esplotatzaileak ginen gu, lan gehiegi eginarazten genielako”.

Lan asko egin bazuten ere, Ekuador bisitatzeko tartea ere hartu zuten. Herrialdea hiru zonatan zatituta dago: kostaldea, mendialdea eta Amazoniako oiha: “Guztiz ezberdinak dira, bai klimari bai paisaiari dagokionez, baina hirurak oso politak dira. Gainera, ez da bidaia luze-rik egin behar zona batetik bestera joateko. Hala ere, oso turista gutxi dabil Ekuadorren”. Quito hiriburua oso handia da; auzo batzuk oso pobreak ditu eta beste batzuk guztiz aberatsak eta dotoreak. Bertako kartzelan ere izan zen: “Zarauztar bat zegoela esan ziguten eta bisitan joan ginen; 250 gramo kokaina atzeman zizkieten eta zortzi urteko zigorra ezarri”.

Ahal izan duen neurrian laguntzen saiatu da Itsaso Ekuadorren, eta aretxabaletarrok animatu gura gaitu borondatezko lankide izan gaitezen.

M.A.




Ondo elikatu bako umeak zituzten ama gazteei laguntzen saiatu ziren Euskal Herri-
tik joandako borondatezko lankide biak.



- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETAN
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68



ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A
ARETXABALETAN
943 79 64 91

605 71 66 92 / 629 47 72 70

JAR EZAZU
HEMEN
ZURE PUBLIZITATEA

Aretxagazeta

Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko urriaren 17a / 141. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

XIV. Mendi Bizikleta Ibilaldia egingo dute oraingo domekan Eskoriatzan

AINTZANE GARDOKI

Aspaldi hartu zuten herriko txirrindulari batzuek herrian bizikletan ibilalditxo antolatu bat egiteko erabakia. Hala, oraingo domekan, hilaren 19an, XIV. Mendi Bizikleta Ibilaldia egingo dute. 43 kilometro izango ditu ibilbideak, eta txirrindulari asko espero dituzte.

09:30ean aterako dira txirrindulariak Eskoriatzako plazatik. Parte hartu gura duenak ordu erdi lehenago eman beharko du izena, plaza bertan.

Iaz 184 txirrindulari hartu zuten parte proban: "Hortxe ibiltzen gara, 150 eta 200 lagun bueltan, baina gure gogoa txirrindulari gehiago erakartzea da. Gero eta ezagunagoa da Eskoriatzako proba, eta horixe gura dugu, alegia, proba honetara ahalik eta txirrindulari gehien ekarri. 300 parte-hartzaile izateraino heldu gura genuke", esan digu antolatzaile lanetan dabilen Juan Luis Markaidek.

Aurtengo ibilaldiak 43 kilometro izango ditu: "Bolibarrera joango dira lehenengo, eta Aitzorrotz, Bentafría, Jarindo, Albiña, Kurtzeta eta Asentzotik behera,



43 kilometroko ibilbidean ibarreko eta kanpotik etorritako ahalik eta txirrindulari gehien elkartu gura dituzte antolatzaileek.

herrira itzuliko dira", gehitu du Markaidek. "Probak gogorra den ospea hartu du, baina bizikletaz, herriaz eta inguruaz disfrutatzeko aukera paregabea dugu domekan".

Mediku zerbitzua, aseguruia, aldagela eta dutxak, hamarretakoa, elastiko bana eta luntxa izango dira parte-hartzaile guztiendako. Txirrindularien artean opari uga-

ri zozketatuko dituzte. Parte hartzeko ezinbestekoa izango da kaskoa eramatea. Antolatzaileek txirrindulariak animatu gura dituzte proban parte har dezaten.

"300 parte-hartzaile izateraino heldu gura genuke datorren domekan"

"Bizikletaz, herriaz eta inguruaz disfrutatzeko aukera paregabea dugu domekan"

Parte hartzeko ezinbestekoa izango da kaskoa eramatea



Irrist batera eta bestera dabilta herritar ugari

Herritar ugari patinak jantzi eta irristaketa ikastaroari ekin diote. Urriaren 12an eta 26an eta azaroaren 2an eta 9an egingo dute patinatzen ikasteko ikastaroa. Egun bakoitzeko bi orduko ekinaldia egingo dute. Udalak antolatutako ikastaroak izugarriko arrakasta izan du: "Emakumezkoek eta gizonezkoek, gazte zein heldu, eman dute izena. 20 lagun hasi dira ikastaroa egiten eta beste 18 egiteko zain gelditu dira", esan digu kultura teknikari Arantxa Untzuetak. /A.G.

LABUR

Elkarrik hitzaldia eskainiko du HUHEZIn

Elkarriko Tailer Nazionalako kide Joseba Sabanek hitzaldia eskainiko du datorren urriaren 23an HUHEZIn areto nagusian. Eskoriatzako HUHEZI fakultateko ikasle talde batek egin zuen Elkarri fakultatera ekartzeko eskaera. Eskaera horri erantzuteko, Elkarrik Bake Konferentzia berriaren gizarte eta prestakuntza fasearen aurkezpena egingo du Eskoriatzako fakultatean. Hitzaldia 19:00etan egingo du Sabanek eta herritar oro dago gonbidatuta.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Ezeiza	943 71 53 56
Arizmendi-Jose Arana	943 77 20 25
Arizmendi-Almen	943 77 20 25
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 54 34
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

AMUSKAREN BIDAIA

Bihar, zapatua, Burgosera joateko autobusa 08:30ean aterako da beheko geltokitik.

'BERTSOTAN EUSKARA LANDU'

Azaroan hasiko den ikastaroan parte hartzeko, urriaren 20a baino lehenago eman behar da izena kultura etxean.

ODOLA EMATEKO AUKERA HUHEZIN

Datorren eguaztenean, hilak 22, odola eman gura duten unibertsitarioek aukera paregabea dute. Egun osoz HUHEZIKO aretoan eman ahal izango dute odola.

AXTROKIRENAGENDA

LUDOTEKA ITXITA

Datorren urriaren 24tik 31ra bitartean Tortolis ludoteka itxita egongo dela jakinarazi gura die bazkideei Euskara Elkarteak, lekuz aldatuko baitute ludoteka.

EUSKARA

Gure hizkuntza ikasi eta hobetzeko asmoz, aurten ere euskaltegia zabalik

AMAGOIA LASAGABASTER

Herriko emakume taldetxo batek eman du izena, aurten ere, Leintz Udal Euskaltegian. Horiek izango dira, hasiera baten, euskara ikasteko asmoz Eskoriatzan eskolak jasoko dituztenak. Hala ere, ikasturtean barrena euskaltegiak beste hainbat ikastaro antolatuko ditu.

Leintz Udal Euskaltegiokoak geratu daude ikasturte berria abian jartzeko. Irakasleak gogoz daude ez dakienari euskaraz irakasteko eta dakienari hobeto egin dezan laguntza emateko. Hala ere, oraingo ikasturtean ez dituzte gelak jendez gainezka izango. Karmele Agirregabiria Leintz Udal Euskaltegioko zuzendariaren esanetan, aurtengo matrikulazio kanpaina nahiko ahula izan da: "Irailaren 26an amaitu zen izena emateko matrikulazio kanpaina ofiziala, eta esan dezakegu ez dela gura bezain arrakastatsua izan, batez ere Eskoriatzan. Jende kopuruz ondo gabiltza, baina eskola orduak murriztu egin ditugu". Edozelan ere, urtean barrena aukera egoten da izena emateko; hortaz, oraingo datuak ez dira oso errealak izaten. Leintz bailara osoa kontuan hartuta, aurten 122 ikasle hartuko dituzte eskolak euskaltegian. Horietatik 75 aurreko ikasturteotan ibili eta aurten jarraituko dutenak dira. Gainerako 47ak, berriz, aurten hasiko

"Matrikulazio kanpaina ez da gura bezain arrakastatsua izan; batez ere Eskoriatzan"

"Euskaltegioko asmoa zen gazteei euskara berreskuratzeko eskolak ematea"

dira aurreneko aldiz euskaltegian euskara ikasten.

ESKORIATZAKO EMAKUMEAK

Eskoriatzan dagoeneko eman dituzte lehenengo eskolak euskaltegiokoak. Luis Ezeizako 21 irakasleri ahozotasuna lantzeko ikastaroa eman zieten irailaren 15etik 26ra bitartean.

Ikasturte osoan ibiliko direnak, bestalde, herriko emakume batzuk izango dira. Horiek martitzenean izan zuten lehenengo eskola eguna, eta aurten ere iazko aurpegi berak elkartu dira. "Eskoriatzan zortzi emakume elkartzen dira urtero. Aurten,



ARTXIBOA

lazo ikasturtean ibilitako emakumeak joango dira aurten ere euskaltegira.

hain justu ere, laugarren ikasturtea egingo dute. Talde horretako kideak ez dira mailaz igotzen, baina euren erritmoan lan handia egiten dute; ulermenean, esate baterako, nabaria da egin duten aurrerapena", dio Karmelek.

BESTE IKASTARO BATZUK

Eskoriatzako Udalarekin lankidetzan gazteei zuzendutako ikastaro bat jarri gura izan du abian euskaltegiak. Hala ere, inor ez da animatu ikastaroan parte hartzera eta oraingo bertan behera gelditu da: "Eskoriatzako Udaleko

Euskara batzordean konturatu ziren 18 eta 25 urte arteko gazteek ikasketa guztiak euskaraz egin arren, kalean gaztelaniaz egiten dutela. Horren ondorioz, gure hizkuntzaren jatorria gaitzen dabilta. Horregatik, gura asmoa zen etxeko euskara hori berreskuratzeko eskolak ematea. Esan bezala, ez dugu arrakasta handirik izan, baina ikastaroa egiteko beste ahalegin bat egingo dugu". Bestalde, oraingo ikasturtean Luis Ezeizako lau begiraleri kirol arloko lexikoa erakusteko ikastaroa emango diete.

LABUR

Euskaraz jolas egiten ikasteko bi ikastaro antolatu ditu Udalak gurasoendako

Hirugarren urtez jarraian Udalak euskal jolas eta kantu ikastaroa antolatu du. Aurten, aldiz, bitan zatitu dute ikastaroa: batetik, 0 eta 5 urte arteko umeendako diren jolas eta kantuak ikasiko dituzte interesatuek; eta bestetik, 3 eta 9 urte arteko umeendako proposak diren kantu eta jolasak. Guraso, irakasle eta begiraleei zuzenduta dauden ikastarook azaroaren 8an, 15ean eta 22an izango dira. Izena eman gura duenak kultura etxera jo behar du urriaren 31 baino lehenago. Eskoriatzarrek 6 euro eta kanpokoek 15 ordaindu beharko dituzte.

IV. Perretxiko Erakusketa egingo dute Ezeiza Herri Eskolako ikasleek datorren asteburuan

Luis Ezeiza Guraso Elkarteak perretxikoak batu eta perretxikoen erakusketa egin gura du urriko azkeneko asteburuan. Eskolako ikasleek eta haien gurasoek perretxikoak batuko dituzte inguruko basoetan hilaren 25ean, goizean. Eguerdian, berriz, batutako perretxikoak sailkatu egingo dituzte eskolako patioan. Eta hurrengo egunean, urriaren 26an, Herriko Plazan perretxiko erakusketa eta dastatzea egin gura dute. Guraso Elkarteak eskoriatzarren laguntza eskatu gura du ekintza hori aurrera eramateko.

LAGUNAK
DASTALEKU

Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63

EDURNE
ESTETIKA ZENTROA

Informa zaitez!

Ile gehiegi eta gainera ile bihurria?
Depil Plus sistemarekin zure arazoak ordutan konponduko dugu...

Aranburuzabala 42 Tel.: 943 71 51 54 ESKORIATZA

TOKI ALAI
TABERNA

Karajiloetan espezializatua

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

MIRENTXU
TABERNA

Kafe goxoa hartzeko

Tel.: 943 71 41 67

Herritarrak teknologia berrietan murgildu guran


AINTZANE GARDOKI

Joan den aste osoan autobus bat egon zen frontoi ondoan aparkatuta. Barruan hainbat ordenagailu eta pantaila erraldoi bat zituen. Beldurrak uxatu, eta herriko 14 lagunek hainbestetan entzuten ditugun teknologia berrien gaineko ikastaroa egin dute.

Mendikoik, Eusko Jaurlaritzako Landa Garapenerako Institutuak, Mendinet programa jarri zuen abian 2002an. Geroztik, Mendinet autobusa han eta hemen herriz herri dabil teknologia berrien gaineko ikastaroak ematen. "Gure autobusa ez da Arrasaten, Eibarren edo Durangon ibiliko; izan ere, herri txikiak eta herri handi-agoetako auzoetara joaten gara. Gatzagan eman dugun ikastaroa 36.a izan da. Euskal Herri osoan ibili gara: Bizkaian, esate baterako, Lea-Artibaiko herri eta auzo guztietan egon gara; Gipuzkoan ere makinatxo bat herri bisitatu ditugu; Araban, Nafarroan eta Iparraldean ere ibiliak gara", esan digu Mendinet autobuseko irakasle Xabier Eskibelek. "Baina egia da Debagoienean lehenengo aldiz sartu garela; Gatzagako Udalak eskatuta etorri gara".

HAMALAU LAGUN IKASTAROAN

Hiru talde izan ditu Xabierrek. Urriaren 6an hasi eta 10era bitartean Gatzagako 14 lagunek egin dute teknologia berrien gaineko ikastaroa: hiru gizonezkoak eta 11



Hamalau lagunek hartu dute parte ikastaroan.

emakumek. "Gatzagan ere, herri gehienetan moduan, emakumeak izan dira nagusi. Ez dakit gizonezkoak zer nolako konplexuak izaten ditugun horrelako ikastaroetan parte hartzeko... Emakumeak askoz ere ausartagoak izaten dira eta Gatzagan ere hori erakutsi dute". Mendinet nagusiei zuzendutako programa da: "Gazteak eta edadetuagoak ere izan ditugu Gatzagan. Gure ikastaroak nagusiei zuzenduta daude, baina 5 urteko umea ere izan nuen ikasle Beizaman".

POSTA ELEKTRONIKOA ETA INTERNET

"XXI. mendeko eskolagabeak teknologia berriak ezagutzen ez dituzten horiek izango dira", da irakasleak ikasleei botatzen dien lehengo esaldia. "Teknologia berrioi beldurra kendu eta hurbi-lagotik ezagutzea da helburua. Interes handia erakutsi dute gatzagarrek", esan digu Xabierrek. Interneten informazioa zelan aurkitu, posta elektronikoa zelan erabili, eta beste ikasi dute. "Teknologiok egunerokotasunean zertarako balio duten ikasi dute ikastaroan".

TXUTXU-MUTXUA



Joxerra eta Aitziber ezkondu egin ziren

Gatzagako alkate Joxerra Perez eta Gatz Museoko arduradun Aitziber Gorosabel joan den zapatuan ezkondu ziren Gatzagako udaletxean. Eugenio Otxoak ezkondu zituen, eta 10 urterako *garantia*, behintzat, eman zien. Egun ederra pasatu eta gero, orain, Joxerra eta Aitziber Polonian dira ezkonbidaian.

LABUR

San Millan azoka prestatzeko lanetan hasita daude Gatzagako herritarrak

Gatzagako udala eta herritarrak hasita daude azaroaren 9an egingo den San Millan azoka prestatzen. Kultura zinegotzia dagoeneko harremanetan dago artisauekin eta Sorginak taldeak, urtero moduan, taloak prestatuko dituela, behintzat jakinarazi du.

Tiro hotsak nagusi izango dira datozen asteotan

AINTZANE GARDOKI

Ehiza denboraldiak urriaren 1ean hasi eta urtarrilaren 31ra arte iraungo du. Gatzagako Ehiza Elkarteak 39 bazkideek dagoeneko egin dituzte lehen tiroak. Denboraldia hasi aurretik, baina, urteko batzar orokorra egin zuten. Pedro Mari Sasiainek eman digu guztiaren berri.

Gatzagako Ehiza eta Arrantza Elkarteak bazkideek joan den irailaren 26an egin zuten urteko batzar orokorra. Batzarrean lau puntu nagusi izan zituzten jorratzeko: urteko diru kontuen gainean egin zuten berba lehenengo; bigarren gaia, berriz, batzordekideen aldatuaren gainekoa izan zen. Batzarrean erabakitakoaren arabera, abendutik aurrera Aitor Diaz de Mendibil izango da elkartearen presidentea. Lan horretan dabilen Pedro Mari Sasiaini hartuko dio

txanda. Mendibilek datozen lau urteotarako lau lagunek taldea aukeratu beharko du lana egiteko; hirugarrenik, ehizan egiteko postuak zozketatu zituzten; eta azkeneko puntua galdera-erantzunendako tartea izan zen.


18 EHIZA-POSTU HERRITARRENDAKO

Elkarteko bazkideek 18 postu dituzte ehizan egiteko. Beste 58 postu kanpoko ehiztariei ematen dizkiete zozketa bitartez. Leku preziatua da Gatzaga ehizan egiteko: "Gatzaga, hegoak joz gero, leku ikaragarria da ehizan egiteko. Iparran nagusi izanez gero, aldiz, hemen ez dugu zer eginik. Esaterako, aste honetan, martitzenean, Etxalarren iparrak gogor jo zuen eta 2.000 uso zenbatu zituzten sareetan harra-patuta. Etxalarren iparra lagun eta gurean, berriz, etsai", esan digu Pedro Mari Sasiainek. Lehenengo hamabostaldia nahiko eskas doa-

la esan digute Gatzagako ehiztariek: "Anboto txapelarekin egon da egun askoan. Hori ez da batere ona guretako. Ez dugu tirorik egiteko egunik izan", gehitu du Sasiainek. "Azaroaren 15era arte ditugu zozketatuta postuak. Oraindik egun asko falta dira, eta esperantzarik ezin dugu galdu".

Azkeneko urteotan, beste leku askotako ehiztariek moduan, Gatzagakoek ere teknologia berriak izaten dituzte lagun. Pedro Marik, aldiz, ez ditu oso gogoko: "Ez Internet, ez eguraldi iragarleak, ez bestelakorik. Askorendako oso baliagarriak dira, baina Gatzagatik itsasoa garbi dagoen edo ez oso garbi ikusten da. Nire iritziz, horixe da fidagarriena: itsasoa garbi badago, usoa izango dugu; zikin egonez gero, berriz, jai".

Ehizaz disfrutatzeko unea da. Usoak nagusi izango dira, eta oilagor banakaren bat ere izango da.



Ehiztari ugari hego haizea noiz helduko zain daude Gatzagako basoetan.

ARTXIBOA

Gastronomia eta Folklore Jaialdia

Urriaren 19an, domekan, Aretxabaletan



CORAZON DE ENCINA
elkartekook
han egongo gara

- Pintxo morunoak • Gazta • Extremadurako ardoa • Urdaiazpiko iberikoa
- Extremadurako gozogintza: erroskillak, pestiñoa eta loreak

Araba Etorbidea 3
Tel: 943 79 11 75 / 83
ARRASATE

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Ate irristagarriak



Parket flotatzailea



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



AZKARATE
AROSTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA





Udazken-neguko moda

ALBOKA gazte moda

ASENSIO jantzi denda

HAURRAK umeen arropa

IRIARTE lentzeria eta umeen arropa

MARI KARMEN oinetakoak

PAGALDAI opariak